



**EUSKO  
IKASKUNTZA**  
Asmoz ta Jakitez



# Eta gazteak Bilbon euskaraz, zergatik ez?

Gazteen euskararen erabileraren azterketa Bilbon

## Bilboko Euskararen Aholku Batzorderako Aurkezpena

Bilbo, 2018ko ekainak 14

## 1. Metodologia

## 2. Eraitza nagusiak

1. Zer da euskara niretzako?
2. Nolakoak gara Bilboko gazteak eta zerekin identifikatzen gara?
3. Bilboko gazteen euskara erabilera.
4. Bilboko gazteen euskara erabilera gehitzeko proposamenak

## 3. Proposamenak

# 1. Metodologia

- **IKERKETAREN HELBURUAK**

1. Bilboko gazteek euskarekiko dituzten esperientziak ezagutzea.
2. Bilboko gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko gakoak identifikatzea.
3. Bilboko gazteen artean euskararen erabilera indartzea.
4. Bilboko gazteei hitza ematea.

- Ikerketaren lagina

- **Gazteen bilaketa:**

- Bilbo erdiko ikastetxe guztitara gutuna bidali zen. Telefonoz jarraipena: orotara 78 zentru.
- 39 zentroekin berriro ere harremanetan jarri zen.
- 7 ikastetxe ikerketa programan sartu ziren.
- Unibertsitateetan ere parte-hartzaileak bilatu ziren.

- **Emitza:**

- 9 ikasle (BHI): Institutu, ikastola eta ikastetxe kontzertatuak. (Txurdinaga, Zurbaran, Deustu-Sarriko, Alde Zaharra, Santutxu)
- 15 ikasle unibertsitarioak: Deustu, EHU eta Andra Mari Magisteritza Eskola.
- 9 parte-hartzaile 15-17 urte bitartekoak, eta 15 18-22 urte bitartekoak.
- 13 neska eta 11 mutil.

# 1. Metodologia

Gazteen foroa	Eragileen foroa
<ul style="list-style-type: none"><li>• 2 saiotako foroa dinamika desderdinak burutu ziren:<ol style="list-style-type: none"><li>1. saioa: diagnostika burutzea<ol style="list-style-type: none"><li>1. <i>dinamika: Zer da euskara niretzako?</i></li><li>2. <i>dinamika: Nolakoak gara Bilboko gazteak eta zerekin identifikatzen gara?</i></li><li>3. <i>Dinamika: Euskararen erabilera, bere oztipoak eta gakoak</i></li></ol></li><li>2. saioa: erabilera sustatzeko proposamenak burutzea.<ol style="list-style-type: none"><li>4. <i>Dinamika: Ekimenen laborategia eta spoten jaialdia</i></li></ol></li></ol></li></ul>	<p>Helburuak:</p> <ol style="list-style-type: none"><li>1. Gazteek foroan agertutako ideiak kontrastatu.</li><li>2. Gazteek foroan esandakoak aintzaz hartuta, Bilbon gazteen euskara erabilera sustatzeko proposamenak egitea.</li></ol> <ul style="list-style-type: none"><li>• 14 lagun:<ul style="list-style-type: none"><li>– Bilboko Udala (euskara (2), kultura, gazteria)</li><li>– Azkue Fundazioa (2)</li><li>– Kafe Antzokia/Konpartsak (2)</li><li>– Ibarrekolanda BHI</li><li>– Soziolinguistika Klusterra</li><li>– AEK</li><li>– Euskaltzaleen Topagunea</li><li>– Artez Euskara Zerbitzuak</li><li>– Elhuyar Fundazioa.</li></ul></li><li>• Saio bat</li><li>• 2 eztabaida taldetan banatuta.</li></ul>

## 2. Eraitza nagusiak

### 2.1. Zer da euskara niretzako?

“Zer da euskara niretzako?” galderari erantzutekoan, partaideek irudi eta sentimendu ugari adierazi dituzte:

#### **TRADIZIOA:**

- Kultura
- Beraien identitatearen parte
- Herria vs. Hiria
- Mundu berezia

#### **ESKOLA / JAIA:**

- Eskolarekiko inposizioaren ideia.
- Jaia euskaraz ere egiten da edo egin daiteke.

#### **DESBERDIN SENTIARAZTEA:**

- Bi modu desberdinetan: “Berezia” / Besteen begietara diferentea.

#### **SENTIMENDUAK:**

- Positiboak
- Negatiboak

## 2. Eraitza nagusiak

### 2.2. Nolakoak gara Bilboko gazteak eta zerekin identifikatzen gara?

#### **Bi talde edo profil. Bat, gehiengoa:**

- **Jaia** (horrekin batera datozen: alkohola, droga eta tabakoaren kontsumoa)
- **Sare sozialak**
- **Itxuraren garrantzia**
- **Gazteekiko jarrera kritikoa:**
  - Gizarteko arazoen aurrean jarrera pasiboa
  - Gutxiengoa aktiboa.
- Azaldu diren elementu horiei hizkuntza desberdinak egokitzerakoan:
  - Gaztelania hizkuntza nagusitzat hartzen dute.
  - Ingelesaren presentzia eta indar handia eta hobe (teknologiak, sare sozialak, moda, musika).
  - Euskarak ez du identifikazio eksklusiborik (sinbolikoa, eskolakoa, euskaraz egiten duena: "*pringao*" da).
- **Beste taldea:**
  - Aktibista eta militantea.
  - Arazoen aurrean mugitzen dena.
  - Kale kulturaren eta manifestazioetan parte hartzen duena.

## 2. Emaidza nagusiak

### 2.3. Bilboko gazteen euskara erabilera: *maila eta mota* (1)

#### Orokorrean:

- Euskararen erabilera murrizta (gaztearen gehiengoa euskaratik urrun).
- Euskara ez dago modan.
- Eskolako hizkuntza da, eskolatik kanpo desagertu egiten da.
  
- Euskara neska-mutilak identifikatzeko indar handia hartzen du. Euskaltzalea bazara, koste soziala du:
  - ✓ Militantea izan beharra daukazu.
  - ✓ Aisialdietan Kake Antzokira edo txosna girora joan behar duzu.
  - ✓ Modu jakin batean jantziko zara, e. a.
  
- Hala ere, partaideen artean izan da estereotipo horrekin apurto eta gazte euskaltzaleen artean **profil aniztasuna aitortzeko beharra agertu** dutenak.

## 2. Emaidza nagusiak

### 2.3. Bilboko gazteen euskara erabilera: *maila eta mota* (2)

#### Komunikazio mailan:

- Lagunartean egotekotan - enblematikoa
    - Gazteentzat Bilbon **euskaraz hitz egitea oso arraroa** da.
    - Kuadrillako harreman hizkuntza euskara bilakatzeko saiakerak egin izan dira, baina arrakastarik ez dute izan, **ingurukoek paso egin** dutelako edo **hizkuntza ohiturak aldatzea oso zaila** egiten zaielako.
    - Partaideen artean **euskara gehiago erabiltzeko gogoia orokorra** izan da, baina gehienek **bakarrik sentitzen dute euren burua**, euskal sare baten faltan.
  - **Whatsapp-en** bidez egiten duten **euskararen erabilera ahozkoan baino handiagoa** da, ahozkoan sentitzen duten lotsa edo konfiantza falta whatsapp-ean ez zaie gertatzen.
  - Partaideen artean izan dira **euskara erabiltzeko hautaketa mugatuak**.
- ☐ Ondorenez, Bilboko gazteen euskara **erabiltzeko modua berezia** da:
- Euskarazko elkarrizketa “garbirik” **ez** dute izaten normalean.
  - Euskara erabiltzekotan, gehienetan, gaztelania ere presente egoten da.
  - **Kode alternantzia eta elkarrizketa elebidunak** nagusitzen dira.



## 2. Emaidza nagusiak

### 2.3. Bilboko gazteen euskara erabilera: *maila eta mota* (3)

- **Irakaskuntza mailan:**
  - Motibazio eta konpromiso falta dela eta, gazte ugari ez du euskararekiko barneko sentimendurik.
  - Sentimendu falta hori **ESKOLAN IZAN DUTEN ESPERIENTZIAREKIN** lotua egoten da.
  - Kopuru handi batentzat euskara ikasgai bat baino ez da, atzerriko hizkuntzen kategoria berean kokatzen dutena.
  - Eskolan euskara erabiltzera behartuak sentitzen dira eta zigorrarekin edo “penko”arekin lotzen dute.
  - Irakasteko moduak ere ez du euskara maitatua izatea laguntzen (gramatikara oso fokalizatua dago).
  - Eskola orduak amaitzerakoan, atsedenaldi bezala hartzen dute euskara ez erabiltzea.

## 2. Emaidza nagusiak

### 2.3. Bilboko gazteen euskara erabilera: *zailtasunak* (4)

- Bilbo eremu erdalduna
  - Beharrik eza
  - Erakundeen euskararekiko konpromiso falta
- Hizkuntza ohituren garrantzia
- Erraztasun eta jariotasun eza
- Lagunarteko erregistro falta
- Euskalkiei eskainitako toki pribilegiatua
- Euskarak eskolarekin duen lotura
- Aurre-iritzi ugari
- Erreferente falta
- Motibazio eta konpromiso falta

## 2. Emaidza nagusiak

### 2.3. Bilboko gazteen euskara erabilera: *gakoak* (5)

#### Eskola

Partaideen iritziz euskara-eskola loturak euskararen erabilerari kalte egiten dion arren, gehienek bat egiten dute eskola euskararentzako funtsezkoa dela baieztatzerakoan, berari esker ume eta gazteek **euskara ikasten** dutelako. Euskara eskolatik kanpo geratuko balitz desagertzeko arriskua izango lukeela baieztatu duenik ere bada.

#### Mintzairarekiko lotura afektibo indartsua

Euskararekiko lotura afektibo ezean gazteak euskarara erakartzea oso zaila dela baieztatu dute partaideek. Euskararekiko **lotura afektiboak motibazioa dakar** berarekin; eta motibazioak, sarritan, **kontzientzia hartzea** eta **iniziatiba**.

#### Mundu kultural eta harremanezko aberats bat

Euskara erabiltzerakoan zeharo zabaltzen da mundu berri bat. Ildo horretan, partaide askok bat egin dute euskal musika mundu horretarako sarbidea izan daitekeela baieztatzerakoan, gazte askok gogoko dutelako euskal musika.

#### Etxean euskaraz

Etxean euskara hitz egitea gako inportantetzat jo dute gazteek; etxean euskaraz hitz egiten baduzu errazagoa delako gero beste toki batzuetan ere euskaraz hitz egitea. Ildo horretan, **bikote euskalduna eta euskaltzalea** izatea ere giltzarria izan daitekeela baieztatu dute partaideek.

#### Komunikazio hizkuntza euskara izango duten guneak eta ekimenak

Euskara komunikazio hizkuntza izango duten gune eta ekimenek berebiziko garrantzia dauka partaideen iritziz. Garrantzia berezia eskaini die  **festa giroko gune euskaldunei**. Partaide guztiak bat egin dute nerabe eta gazteei zuzendutako **euskaraz burutzen diren ekimenak** ugaritzea oso lagungarria izango litzatekeela; alegia, aisia eta kultura programa interesgarriak eskaintzea.

## 2. Emaidza nagusiak

### 2.4. Bilboko gazteen euskara erabilera gehitzeko proposamenak

- Euskarak gazte askorengan duen euskara-eskola lotura akademiko, gris, aspergarri, inposiziokoari aurre egiteko:
  - Euskara **esparru ludiko**arekin lotzea; alegia, gozamenarekin, dibertsioarekin, alaitasunarekin.
  - **Euskara “guaya”** dela edo izan daitekela erakustea.
  - **Gazte giroa**, gazteengandik eta gazteentzako sortutakoa.
  - Euskara ez erabiltzeagatik **mundu aberats eta interesgarri** bat galtzen dutela ohartaraztea, baina inoiz ez gazteak errudun sentiaraziz.
- Euskararen eta euskaltzaleen inguruan nagusitzen diren aurre-iritzi eta estereotipoei aurre egin eta euskaratik urrun dauden gazteak erakartzeko:
  - Euskararen irudi irekia agertzea, **profil ezberdinetako gazteentzako** bizigarri izan daitekeena (nahiz eta ohartzen diren gazte batzuk erakartzea errazagoa izango dela).
  - Euskal **erreferente erakargarriak** proposatzea, estereotipoekin apurtzeko baliagarri izan daitezkeenak.
- Gazteen gaitasun motari lagungarri izango litzaiokeen euskara sustatzeko:
  - Erregistro ez formala lantzeko lagungarria izatea.
  - Euskara batua legitimatzea, erdigunean jartzea; alegia, bakoitzak duen aldaerarekin, dela euskalkia dela batua, gustura sentitzea.
- Gazteek dituzten bizi estilo eta beharriaz egokitzeko:
  - Nerabe eta gazteei zuzentzea.
  - Merkea izatea.
  - Sare sozialak presente egotea.

## 2. Emaidza nagusiak

### 2.4. Bilboko gazteen euskara erabilera gehitzeko proposamenak

#### Laburbilduz, dauden eragozpenak kontutan harturik:

- **Etxeetan gutxi erabiltzen da:** Partaideen erdiak gaztelania bakarrik, laurden eskas batentzako euskara eta kanpo hizkuntzak ere agertu dira: errumaniera eta arabiera.
- **Eskolarekin lotuta** agertzen da, ez modu positiboan eskola, institutu eta ikastetxeetan eta eskolatik ateratzean desagertzen da.
- **ESKOLATIK KANPO:** inguru erdalduna, euskaraz jardutea oso zaila.
  - Topagune espazioa: Zazpi Kaleak, Kafe Antzokia, txosna gunea jaietan, auzogune “euskaldunagotzat” jotzen dituzte. Baina sinbolikoa eta enblematikoagoa da praktikoa baino gehiago.
  - Zenbaitentzat: euskaraz berba egiten saiatzen dena ez da begi onez ikusten.

#### Proposamenak:

- **Mundu digitala garatu:** sare sozialak, komunikabideak.
- **Topagune berriak sortu.**
- **Trukaketak antolatu:** Euskal Herriko herri ezberdinetako gazteen artean.
- **Ekimenak sortu.**

# 3. Proposamenak

## Aurretik aipatu direnez gain:

- Ikastetxeetako euskararen irakaskuntza eta presentzia errebisatu.
  - ✓ Arlo gramatikala baztertu gabe, ahozkoasuna eta ekimen entretenigarrien bitartez landuz.
  - ✓ Jai giroa eta dibertsioa ere eskola munduan, aisialdiko ekitaldietan zabalduz.
- Euskarazko erreferenteak sortu behar zaizkie:
  - ✓ Erregistro informalak sortu behar dira.
  - ✓ Euskalkiek balorazio berezia hartzen dutenez, bizkaieraren erabilera ere zaindu beharko litzateke.
- Aisialdiko eskaintza gehitu behar zaie. Horrela, gazteen arlo ludikoa kontutan hartuz, euskara barne-sentimenduz bizi ahal dezaten.
- Gazte euskaltzaleak, oso sakabanatuta daudenak, elkar ezagutzeko ekimenak antolatu, beraien artean sareak sortu eta, taldearen indarra aprobetxatuz, beraien hizkuntza ahalduntzea sustatuz.
- Euskararekiko atxikimendu ala inplikazio berezia duten gazteekin ekitaldiak antolatu.



**EUSKO  
IKASKUNTZA**  
Asmoz ta Jakitez



Eskerrik asko!

---

Bilbao, 2018ko ekainak 14